



Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren ebaluazioa 2018

Jarraipen-txostena

2018

AURKIBIDEA

0.	AURKEZPENA	5
I. ATALA:	BERDINTASUNERAKO VII. PLANAREN JARRAIPENA. 2018KO LABURPENA	6
1.	IKUSPEGI METODOLOGIKOA. HASIERAKO GOGOETA BATZUK	7
2.	EBALUAZIOAREN EMAITZAK: GOBERNANTZA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO JARDUKETAK	9
2.1.	GOBERNANTZA BERDINTASUNERANTZ ERAMATEKO NEURRIEI LOTUTAKO EMAITZAK	9
2.1.1.	BERDINTASUNERAKO ARAUDI ESPEZIFIKOA	9
2.1.2.	EAEKO BERDINTASUN-POLITIKEN PLANGINTZA	10
2.1.3.	BERDINTASUNERAKO UNITATE ADMINISTRATIBOAK ETA EAEKO ADMINISTRAZIOETAN BERDINTASUNA BULTZATZEN DUTEN LANGILEAK	12
2.1.4.	BERDINTASUN-POLITIKETARA BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA GENERO- IKUSPEGIA EAEKO AURREKONTUETAN	15
2.1.5.	ARAUEN GENERO-INPAKTUAREN AURRETIKO EBALUAZIOA EAEKO HERRI- ERAKUNDEETAN	17
2.1.6.	PARTAIDETZA BERDINTASUN-POLITIKETAN	18
2.1.7.	BERDINTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA HERRI-ADMINISTRAZIOETAN	18
2.1.8.	BERDINTASUN-KLAUSULAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KONTRATU, HITZARMEN ETA DIRU-LAGUNTZETAN	21
2.1.9.	BERDINTASUN-ALORREKO BESTE HELBURU GARRANTZITSU BATZUEN BILAKAERA GOBERNANTZAREN ESPARRUAN	22
2.2.	ESKU HARTZEKO ARDATZEN JARRAIPENAREN EMAITZAK	25
2.2.1.	ESKU-HARTZEEN HELBURU POLITIKOAK	25
2.2.2.	BERDINTASUN-EKINTZEN GAIK	27
2.2.3.	ESKU-HARTZE MOTA	28
2.2.3.1.	PRESTAKUNTZA	30
2.2.3.2.	SENTSIBILIZAZIOA	33
2.2.3.3.	INFORMAZIOA, EZAGUTZA ETA ANALISIA	34
2.2.4.	EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK SORTU ETA KUDEATZEA	35
2.2.5.	BERDINTASUN-EKINTZEN ONURADUNENGANAKO HURBILPENA (ERAKUNDEAK NAHIZ PERTSONAK)	36
2.2.5.1.	EKINTZEN ONURADUNAK	36
2.2.6.	EKINTZAK EGOKITZEKO NEURRIEN ERABILERA	37
2.2.7.	ESKU-HARTZEEN KOSTUA	38
II. ATALA:	EAEKO BOTERE PUBLIKOEK BERDINTASUNAREN ALORREAN JORRATUTAKO JARDUEREI BURUZKO INFORMAZIO XEHAKATUA. 2018	40
1.	GOBERNANTZA	41
1.1.-	BERDINTASUNERAKO ARAUDIA	41
1.2.	BERDINTASUN PLANGINTZA	41
1.3.-	ADMINISTRAZIO- ETA LANGILE UNITATEAK	43
1.4.-	BERDINTASUN-POLITIKETARA BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK	45
1.5.-	INPAKTUAREN AURRETIKO EBALUAZIOAK	46
1.6.-	PARTAIDETZA BERDINTASUN-POLITIKETAN	47
1.7.-	BERDINTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA	48
1.8.-	BERDINTASUN-KLAUSULA KONTRATAZIO PUBLIKOETAN	50
1.9.-	BERDINTASUN-ALORREKO BESTE HELBURU GARRANTZITSU BATZUEN BILAKAERA GOBERNANTZAREN ESPARRUAN	52
2.	ESKU-HARTZEAK	56

Taulen aurkibidea

1. taula:	EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren ebaluazioan parte hartu duten instituzioen kopurua. 2018.....	7
2 Taula:	Berdintasun-planak eta -programak indarrean dituzten erakunde partaideen kopurua eta planen ezaugarriak. 2018	41
3 Taula:	Barneko berdintasun-planak dituzten erakundeen kopurua. 2018.....	42
4 Taula:	Barneko berdintasun-planik ez duten erakundeen lan-antolamenduan txertatutako neurriak. 2018.....	42
5 Taula:	Berdintasunerako administrazio-organoak edo -unitateak dituzten erakundeen kopurua 2018	43
6 Taula:	Berdintasuna bultzatzen ari den enpleguaren ezaugarriak. 2018.....	43
7 Taula:	Langileak, kontratu-motaren arabera. 2018	43
8 Taula:	Berdintasuna bultzatzeko eginkizuna duten teknikariak. 2018.....	43
9 Taula:	Dedikazio eskusiboan ari diren langileak, lanaldi-motaren arabera. 2018	44
10 Taula:	Berdintasuneko teknikariak LPZn sartu dira (Lanpostuen Zerrenda). 2018.....	44
11 Taula:	Aurrekontu orokorra eta berdintasunerako berariaz identifikatutakoa (eurotan). 2018.....	45
12 taula:	Gauzatutako berdintasun-aurrekontuen xehakapena (eurotan). 2018.....	45
13 Taula:	Genero-ikuspegia aurrekontuetan sartzearen aurrerapenak. 2018	45
14 Taula:	Inpaktu-ebaluazioa duten arauen kopurua eta ezaugarriak. 2018.....	46
15 Taula:	Erakundeek araudietan berdintasuna lortzeko ezarri dituzten neurriak. 2018	46
16 Taula:	Genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioak egiteko jarraibideak, akordioak eta abar onartzea 2018.....	46
17 Taula:	Herritarren partaidetza eta berdintasuna. 2018.....	47
18 Taula:	Erakundeek sustatutako berdintasun-alorreko barne-prestakuntza. 2018	48
19 Taula:	Berdintasuneko barne-prestakuntzako partaidetza, kategoriaren arabera banakatuta. 2018.....	48
20 Taula:	Berdintasunari buruzko berariazko prestakuntzan parte hartzea, ez barruan, ez IVAPen. 2018	48
21 Taula:	Berdintasun-alorreko prestakuntzaren banakapena (aurreko taula). 2018	49
22 Taula:	Berdintasun-irizpideak kontratazioetan. 2018	50
23 Taula:	Berdintasun-irizpideak hitzarmenetan. 2018	50
24 Taula:	Berdintasun-irizpideak diru-laguntzetan eta laguntzetan. 2018	50
25 Taula:	Berdintasun-irizpideak beketan. 2018.....	51
26 Taula:	Kontratazio-prozesuetan irizpideak ezartzeko arau, gidalerro eta abarren onarpena. 2018.....	51
27 Taula:	Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia txertatzea. 2018.....	52
28 Taula:	Berdintasunari koordinazio-egituretan parte hartzea. 2018.....	52
29 Taula:	Sail arteko koordinaziorako egituren bilkura-kopurua berdintasun-alorrean 2018 (berdintasuna)–	52
30 Taula:	Sail barneko koordinaziorako egituren bilkura-kopurua berdintasun-alorrean 2018 (berdintasuna)	52
31 Taula:	Beste koordinazio-egitura batzuk eta indarkeriari buruzko protokoloak 2018.....	52
32 Taula:	Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea, era sistematikoan edo puntualean. 2018	53
33 Taula:	Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko azterlanak. 2018	53
34 Taula:	Azterlan sektorialak, gaien arabera 2018	53
35 Taula:	Emakumeen kolektiboei edo taldeei buruzko azterlanak, 2018	53
36 Taula:	Hautapen-prozesuen kopurua eta ezaugarriak. 2018.....	54
37 Taula:	Berdintasun-plazak dituzten prozesuak. 2018	54
38 Taula:	Enplegu publikoan sartzeko, sustatzeko... eta sariak emateko epaimahaiak. 2018	55
39 Taula:	Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2018	55
40 Taula:	Identifikatutako jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2018.....	56
41 Taula:	Aurreko urtekoen jarraipena izan diren jarduketaren kopurua eta ehunekoa, erakunde-motaren arabera. 2018.....	56
42 Taula:	Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2018.....	56
43 Taula:	Gai jakin bat garatzen duten jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2019	57
44 Taula:	Esku-hartze mota berezi modura egin diren jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2018	57
45 Taula:	Herritarrak prestatzeko jardueretako partaideen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2018	57
46 Taula:	Prestakuntza-helburu zehatzetara zuzendutako jarduketaren kopurua (herritarrentzako prestakuntza), erakunde-motaren arabera. 2018	58
47 Taula:	Administrazioen zerbitzu publikoetako prestakuntza-jardueretako partaideen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2018	58
48 Taula:	Zerbitzu Publikoetako langileentzako prestakuntza-jardueren kopurua, prestakuntza-helburuen eta erakunde-motaren arabera. 2018	58
49 Taula:	Sentsibilizazio-, hedapen- eta komunikazio-jardueretako parte-hartzaileen kopurua, erakunde-motaren arabera 2018	58
50 Taula:	Sentsibilizazio-jarduketaren kopurua tipologiaren eta erakunde-motaren arabera. 2018.....	59
51 Taula:	Jardunbide jakinetan oinarritutako informazio-, ezagutza-eta azterketa-jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera.2018	59
52 Taula:	Zerbitzu eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jardueren kopurua eta ezaugarriak, erakunde-motaren arabera. 2018	59
53 Taula:	Azken hartzaile diren alorren arabera jarduketaren kopurua erakunde-mota bakoitzean. 2018.....	59

54 Taula:	Gizon, emakume beste identitateei berariaz zuzendutako jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2018.....	60
55 Taula:	Talde bereziei zuzendutako jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2018	60
56 Taula:	Beste berdintasun-helburu batzuentzat ere (ez soilik emakume eta gizonentzat) bideratutako jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2018	60
57 Taula:	Talde jakinetara egokitzeko neurriak jasotzen dituzten jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2018	60
58 Taula:	Jakinarazitako jarduketaren kostua, erakunde-motaren arabera. 2018.....	60

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa.	Berdintasunerako araudia duten erakunde parte-hartzaileen eta erakundearen kopurua. 2018	9
2. grafikoa.	Parte hartu duten eta planak jorratu dituzten erakundearen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2018.....	10
3. grafikoa.	Ebaluazioan parte hartu duten erakundearen kopurua eta berdintasun-unitatea dutenena. 2018	12
4. grafikoa.	EAEko berdintasun-langileak, erakundearen arabera. 2018	13
5. grafikoa.	Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta berariazko prestakuntza dutenak, erakundearen arabera. 2018	14
6. grafikoa.	Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta dedikazio eskusiboa dutenak (LO+LP), erakundearen arabera. 2018	14
7. grafikoa.	EAEko berdintasun-alorrean gauzatutako aurrekontua, erakundearen arabera (mila eurokotan). 2018.....	15
8. grafikoa.	Aurrekontu xehakatuak (mila eurokotan). 2018	16
9. grafikoa.	Inpaktu-txostenak, berdintasun-neurriak gehitzea eragin dutenak eta araua neutroa dela ezarri dutenak, erakundearen arabera. 2018	17
10. grafikoa.	Berariaz berdintasun-alorrekoak diren edota funtzioetan nahiz osieran genero-ikuspegia jasotzen duten organoak eta kontseiluak. 2018	18
11. grafikoa.	Emakumeak eta gizonak, Euskadiko administrazioek berdintasunaren arloan sustatutako prestakuntzan. 2018	19
12. grafikoa.	Emakumeak eta gizonak berdintasunari buruzko beste prestakuntza batean (ez barnekoa, ez HAEErena). 2018	19
13. grafikoa.	Berdintasunean trebatutako langileak, erakundearen arabera. 2018	20
14. grafikoa.	Berdintasunean trebatu diren pertsonak, kategoria profesionalen arabera. 2018	20
15. grafikoa.	Berdintasun-irizpideak kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan. 2018	21
16. grafikoa.	Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2018	22
17. grafikoa.	Berdintasun-alorreko unitateen eta langileen partaidetza euren erakundeetako koordinazio-egitura orokorrean. 2018	23
18. grafikoa.	Epaimahaietan eta auzitegietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua. 2018	24
19. grafikoa.	Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2018	24
20. grafikoa.	EAEko berdintasun-alorrean jorratutako jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2018	25
21. grafikoa.	Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduketaren kopurua. 2018	26
22. grafikoa.	Gai zehatz bati lotuta jorratutako jarduketaren kopurua. 2018	27
23. grafikoa.	Jarduketa-kopurua esku-hartze motaren arabera. 2018	29
24. grafikoa.	EAEko berdintasunean trebatutako pertsonak (herritarak), erakundearen arabera. 2018.....	30
25. grafikoa.	Herritarak trebatzeko ekintzen kopurua, helburuaren arabera. 2018	31
26. grafikoa.	EAEko berdintasunean trebatutako langile publikoak, erakundearen arabera. 2018	31
27. grafikoa.	Zerbitzu publikoentzako prestakuntza-jarduketaren kopurua, helburuaren arabera. 2018.....	32
28. grafikoa.	Herritarrentzako prestakuntza eta administrazioetako langile publikoentzako prestakuntza parte hartu dutenen kopurua. 2018.....	32
29. grafikoa.	Berdintasun-alorreko sentsibilizazio-ekintzetako partaideak, erakunde sustatzailearen arabera. 2018....	33
30. grafikoa.	Sentsibilizazio-ekintzen kopurua, ekintza-motaren arabera. 2018.....	34
31. grafikoa.	Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2018	34
32. grafikoa.	Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, oinarriko edukiaren arabera. 2018.....	35
33. grafikoa.	Zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2018..	35
34. grafikoa.	Zerbitzu eta baliabideak sortu, kudeatu eta aldatzeko jarduketaren kopurua. 2018	36
35. grafikoa.	Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, sexuaren arabera. 2018.....	36
36. grafikoa.	Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, beste aldagai batzuen arabera. 2018	37
37. grafikoa.	Bestelako desberdintasunak borrokatzera bideratutako ekintzen kopurua 2018.....	37
38. grafikoa.	Egokitzapen-neurriak dituzten ekintzen kopurua. 2018	37
39. grafikoa.	EAEko berdintasun-alorrean jorratutako jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. Jarduketa guztiak eta kostua identifikatuta. 2018	39
40. grafikoa.	Jakinarazitako jarduketaren kostu osoa, erakundearen arabera. 2018	39
41. grafikoa.	Berdintasun-planak irudian zehaztutako sailen laguntzarekin ezartzen ari diren udalak eta foru-aldundiak. 2018	42

0. AURKEZPENA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko 2/1988 Legearen 4. artikulua ezartzen du memoria bat egin behar dela, EAEko botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egiten duten plangintzarekin lotutako jarduerak idatziz jasotzeko. Txosten honek betebeharrak horri erantzuten dio, eta EAEko erakundeek 2018an berdintasunaren arloan egindako jarduerari buruz eman duten informazioa aurkezten du.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren jarraipena egiten duen lehen txostena da. Hori dela eta, zenbait aldaketa egin dira aurreko urteetako txostenekin alderatuta. Dena den, egitura berari eusteko ahalegina egin da, berdintasun-politiken bilakaerari buruzko analisia egitea errazagoa izan dadin.

Dokumentuak bi atal ditu: lehenean, botere publikoek berdintasunaren arloan egindako jarduketari buruzko funtsezko informazio batzuk azalduko ditugu; eta, bigarrean, informazioa xehe-xehe aurkeztuko dugu taulen bidez (Eranskin estatistikoa).

Emaitzak EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren egitura kontuan hartuta azalduko ditugu:

- **Gobernantza Onerako programak eta neurriak.** Planak 5 programa eta 15 neurri biltzen ditu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen aginduak jaso eta zabaltzen dituztenak, berdintasun-printzipioa euskal botere publikoen antolamenduan eta funtzionamenduan txertatzeko.
- **Berdintasunaren arloan esku hartzeko ardatzak.** Blokeak 3 ardatz ditu, eta, haietan barne hartuta, 8 programa eta 22 helburu estrategiko: emakumeak ahalduntzea; ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzea, eskubideak bermatzeko; eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

Erakundeek aplikazio informatiko baten bidez eman dute memoria honetan jasotako informazioa. Aplikazio horretan, erakunde bakoitzak Gobernantza Onari buruzko galdetegi bat bete behar du, eta VII. Planaren Esku Hartzeko Ardatzekin lotutako jarduketaren galdetegiak ere bai, ebaluazio-urtean garatutako ekintzak adina galdetegi, hain zuzen. Halaber, erakundeetako berdintasun-politiken arduradunek informazio osagarria eta bestelako xehetasunak ere eman dituzte, aplikazioan sartutako datuak hobeto ulertzen laguntze aldera. Memoria honetan aurkezten den informazioa 2019ko irailetik abendura bitartean jaso da, eta 2018an egindako ekintzei dagokie.

**I. ATALA:
BERDINTASUNERAKO VII. PLANAREN
JARRAIPENA.
2018KO LABURPENA**

1. IKUSPEGI METODOLOGIKOA. HASIERAKO GOGOETA BATZUK

EAEEn, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak esparru-planak dira, eta, beraz, botere publikoek berdintasunaren arloan izan beharreko printzipio eta helburuak zehazten dituzte, baina ez, ordea, garatu beharreko jarduketak; hala, administrazioei dagokie proposatutako berdintasun-helburuak lortzeko ekintzak diseinatzea. Memoria honetan jasotako informazioa EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren definitutako adierazleetan dago oinarrituta; hortaz, VI. Planaren indarraldian aurkeztutakoaz bestelako informazioaren bat biltzen du.

Memoria honetan, betearazpenaren ikuspegitik aztertuko dugu EAEko berdintasun-politiken bilakaera, eta aurrerapenak politiken garapenaren arabera balioetsiko ditugu. Balorazio hori egitea errazagoa da gobernantzaren arloan; izan ere, 4/2005 Legeak eta haren ondorengo garapenak errazago neur daitezkeen helburu batzuk ezartzen dituzte. Eremu guztietan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen aurka egiteari edo haiek ezabatzeari dagokionez, botere publikoek garatzen dituzten ekintzak soilik jasotzen ditu memoria honek, eta ez haien emaitzak. Politika eta esku-hartze horien ondorioak geroago ebaluatuko dira, eraginaren ebaluazio baten bidez, VII. Planaren ezarritakoari jarraituz.

Beraz, txosten honen xedea da EAEko berdintasun-plangintzaren garapena aztertzea eta oinarritzko gaiak zein diren jakitea, hala nola berdintasunaren arloan lan egiten duten pertsonen kopuruaren bilakaera eta ezaugarriak, eta berdintasuna bultzatzeko finantzaketa. Orobat, EAEko botere publikoen esku-hartzeak desberdintasunaren zein esparrutara bideratu ziren ere aztertuko dugu.

Memoria honetan, 131 erakunde informatzailearen informazioa bildu eta aztertu da. Hona hemen erakundeak: Eusko Jaurlaritzako sail guztiak; hiru foru-aldundiak; hainbat udal, mankomunitate eta partzuergo; erakunde autonomoak; erakunde publikoak; kapital publikoko enpresak; eta berdintasun-esparruan eginkizun garrantzitsua duten beste entitate eta erakunde batzuk (adibidez, EHU eta Batzar Nagusiak).

1. taula. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren ebaluazioan parte hartu duten instituzioen kopurua. 2018

Erakundeak	Kopurua
Eusko Jaurlaritzako sailak	12
Foru-aldundiak	3
Udalak ¹	69
Mankomunitate eta partzuergoak	12
Erakunde autonomoak eta erakunde publikoak ²	18
Kapital publikoko enpresak	11
Bestelako instituzio eta erakundeak	6
GUZTIRA	131

¹ 66 udalek erantzun diote Gobernantzaren arloko galde-sortari, eta 35ek jarduera-fitxak txertatu dituzte.

² Emakunde epigrafe horretan sartu dugu.

Jarraian, ebaluazioan parte hartu duten erakundeak jaso ditugu zerrenda batean, eta jarraipen-
memoria honetan jasotako informazioa emango dugu.

Abadiñoko Udala	Nabarnizko Udala	Arabako Foru Aldundia
Abaltzisketako Udala	Okondoko Udala	Bizkaiko Foru Aldundia
Amezketako Udala	Oñatiko Udala	Gipuzkoako Foru Aldundia
Andoaingo Udala	Ordiziako Udala	Emakunde
Aramaioko Udala	Orendaingo Udala	EITB
Arraia-Maeztuko Udala	Pasaiaiko Udala	Poliziaren Euskal Akademia
Arratzua-Ubarrundiako Udala	Plentziako Udala	Garapenerako Lankidetzaren Euskal
Arrigorriagako Udala	Portugaleteko Udala	Agentzia
Artzentalesko Udala	Santurtziko Udala	Uraren Euskal Agentzia
Artziniegako Udala	Sestaoko Udala	Lehiaren Euskal Agintaritza
Astigarragako Udala	Sopelako Udala	Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Ataungo Udala	Ugaoko Udala	Arazoetarako Batzordea
Aiarako Udala	Urdulizko Udala	ETS. Euskal Trenbide Sarea
Baliarraingo Udala	Urkabustaizko Udala	Eustat
Balmasedako Udala	Gasteizko Udala	EEE. Energiaren Euskal Erakundea
Barakaldoko Udala	Zallako Udala	HABE
Barrikako Udala	Zarauzko Udala	Finantzen Euskal Institutua
Berangoko Udala	Zeberioako Udala	HAEE
Berastegiko Udala	Zigoitiko Udala	Kontsumobide. Kontsumoko Euskal
Berrizko Udala	Zizurkilgo Udala	Institutua
Berrobiko Udala	Zuiako udala	Lanbide
Bilboko Udala	Zumaiako udala	Osakidetza
Donostiako Udala		Osalan
Eibarko Udala		Uniquail
Elduaingo Udala	Arabako Lautadako Kuadrilla	Basquetour
Elgoibarko Udala	Añanako Kuadrilla	EJIE
Erandioko Udala	Saiaz Mankomunitatea	Euskadiko Kirol Portuak
Etxebarriko Udala	Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea	Euskotren
Foruko Udala	Urola Garaiko Mankomunitatea	Ihobe
Galdakaoko Udala	Aiarako Kuadrilla	Itelazpi
Gautegiz Arteagako Udala	Tolosaldeko Mankomunitatea	Izenpe
Getariako Udala	Uribe Butroeko Zerbitzu Mankomunitatea	Neiker-Tecnalia
Gordexolako Udala	Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla	Osatek
Gorlizko Udala	Eudel	SPRI
Hernaniko Udala	Haurreskolak	Visesa
Hondarribiko Udala	Gorbeialdeko Kuadrilla	
Igorreko Udala	Lehendakaritza	ELIKA. Nekazaritzako Elikagaien
Irungo Udala	Osasun Saila	Segurtasunerako Euskal Fundazioa
Legorretako Udala	Hezkuntza Saila	HAZI
Legutioko Udala	Lan eta Justizia Saila	Arabako Batzar Nagusiak
Leintz Gatzagako Udala	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	Bizkaiko Batzar Nagusiak
Leioako Udala	Ekonomia Garapen eta Azpiegitura Saila	Herri Kontuen Euskal Epaitegia
Lemoako Udala	Segurtasun Saila	Euskal Herriko Unibertsitatea
Lemoizko Udala	Ogasun eta Ekonomia Saila	
Lezoko Udala	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila	
Mendaroko Udala	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	
Mungiako Udala	Ingurumen, Lurralde Plangintza eta	
	Etxebizitza Saila	
	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	

2. EBALUAZIOAREN EMAITZAK: GOBERNANTZA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO JARDUKETAK

Hurrengo ataletan, EAEko erakundeek 2018an emandako informazioa bildu dugu labur-labur. Kapitulu honek bi atal ditu, Berdintasunerako VII. Planaren egituraren arabera banatuta: batetik, gobernantza oneko programak, berdintasunaren printzipioa Euskadiko botere publikoen antolamenduan eta funtzionamenduan txertatzen dutenak; eta, bestetik, VII. Planaren hiru jarduketa-ardatzei heltzeko egindako esku-hartzeak. Hauek dira esku-hartzeok: emakumeen ahalduntzea; ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzea, eskubideak bermatzeko; eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

2.1. Gobernantza berdintasunerantz eramateko neurriei lotutako emaitzak


VII. Planak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4 artikuluan genero-mainstreamingari buruz emandako definizioa jasotzen du: *emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrianak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan.*

Hurrengo puntuan, genero-mainstreamingaren helburuen emaitzarik esanguratsuenak bildu dira. Memoriaren II. atalean, informazio hori zabaldu egin dugu, informazio-taula zehatzetan.

2.1.1. Berdintasunerako araudi espezifikoa

2018an, berdintasunaren arloko foru- eta toki-arau espezifikoek berri emateko eskatu zitzaizkien horiek garatzeko gaitasuna duten erakundeei. Udalen artean, jarraipenean parte hartu duten 69 udaletatik 11k (% 16) adierazi zuten arau horiek zituztela, eta beste sei ari ziren arau horiek egiten. Mankomunitateen artean, batek soilik zituen arauak. Foru-aldundiei dagokienez, bik (% 67) adierazi zuten berdintasunerako araudi espezifikoa zutela.

1. grafikoa. Berdintasunerako araudia duten erakunde parte-hartzaileen eta erakundeen kopurua. 2018



2.1.2. EAEko berdintasun-politiken plangintza

Administrazio publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egin beharreko plangintza 4/2005 Legean dago ezarrita. Legeak ezartzen duenez, *«legegintzaldi bakoitzean, eta sei hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zuzen, euskal botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira»*.

Eusko Jaurlaritzako sailek, foru-aldundiek eta udalek EAEko Administrazio Orokorraren plangintzatik eratorritako gidalerroekin bat etorriko diren berdintasun-planak edo -programak onartzen dituzte, nahiz eta guzti-guztietan onartzeko aldia eta indarraldia beti berdina ez izan. Orobat, kapital publikoko enpresetara ere iristen da berdintasun-alorreko esku-hartzeak planifikatzeko betebeharra.

Eusko Jaurlaritzako sailetan, bai eta foru-aldundietan ere, berdintasun-arloko plangintzak ibilbide luzea du, eta egonkorra dela esan daiteke. Toki-administrazioan, egoera oso desberdina izaten da: jarraipenean parte hartu zuten 69 udalen % 61ek (42) adierazi zuen berdintasun-plana zuela. Oro har, jarraipenean parte hartu duten 131 erakundeetatik³, 83k (% 63,3) berdintasunerako plana zuten.

2. grafikoa. Parte hartu duten eta planak jorratu dituzten erakundeen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2018

Plan horiek egitean, erakunde gehienek egoeraren diagnostikoak egin zituzten, planaren bidez jorratu beharreko helburu eta erronkak identifikatzeko: planen % 87tan, aurretiazko diagnostikoak egin ziren. Alabaina, ez da hain ohikoa herritarrek parte hartzeko prozesu orokorrak erabiltzea plan horietan: sei udalek eta kapital publikoko enpresa batek soilik erabili zituzten parte hartzeko prozesu orokorrak. Bestalde, bi foru-aldundik eta berdintasun-plana zuten 42 udaletatik 31k (% 74) emakumeek eta/edo kolektibo feministek eta emakume-elkarteek parte hartzeko prozesu espezifikoak egin zituzten, berdintasun-plana egiteko. Aipatzekoa da, halaber, 23 erakundek jakinarazi dutela ebaluazioa egin den urtean berdintasunerako plan bat egiteko prozesuan zeudela.

³ Beste erakundeetatik, EHUK eta Bizkaiko Batzar Nagusiek berdintasun-planak zituzten (EHUK bi plan izan ditu aldez aurretik).

Berdintasun-planak zeharkakoak izatea eta erakunde osoak bere gain hartzea da helburua, eta, horretarako, garrantzitsua da erakundeetako hainbat arloko parte hartzea plan horietan. Erakundearen parte-hartze orokor hori sistematikoa izan zen Eusko Jaurlaritzako sailetan eta hiru foru-aldundietan, eta ia erabat sistematikoa da udal-eremuetan. Gizarte-politika, kultura, euskara, kirola eta alkatetza izan ziren berdintasun-plangintzan gehien parte hartu zuten arloak.

Plangintzaren sistematizazioari buruzko analisiak adierazle garrantzitsutzat hartzen ditu plan horien jarraipen- eta ebaluazio-sistemak ere. Jakinarazitako planen % 87k garatutako eremua da hori, 2017an identifikatutako egoeraren ildotik.

Berdintasun-plangintzaz gain, jarraipen honetan parte hartu duten erakundearen % 28k (37) beste plan-mota batzuk zituen, gehienak emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutakoak.

2018an, kontsulta egin zitzaion erakundeei, beren berdintasun-planen helburuak eta jarduerak beren estrategia orokorraren plangintzan txertatzeari buruz. Eusko Jaurlaritzako sailek soilik adierazi dute txertatu egin zituztela; hau da, lan handia egin behar dute EAEko erakundeek oraindik ere.

Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoak⁴ ezartzen duenaren arabera, erakundeek barneko lan-plangintza egin behar dute, haietan lan egiten duten pertsonen kudeaketan genero-ikuspegia txertatuko duena. 2016an, EAEko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana onartu zen, eta 2017an sartu zen indarrean. Plan horrek berdintasun-mandatuaren aplikazioa sistematizatu egin zuen erakunde horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzetan. Udalei dagokienez, hiruk baino ez zituzten barne-plan horiek. Ohikoagoa izan zen kapital publikoko enpresek izatea (11 parte-hartzaileetatik 7k zuten). EHUk ere bazuen.

⁴ Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, barneko berdintasun-planak egoeraren diagnostikoa egin ondoren hartutako neurri-multzoko antolatutako dira, eta enpresan edo erakundearen emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna lortzea eta sexuagatiko diskriminazioa desagerraraztea dute helburu.

2.1.3. Berdintasunerako unitate administratiboak eta EAEko administrazioetan berdintasuna bultzatzen duten langileak


4/2005 Legeak ezartzen duenez, sailean bertan eta hari atxikitako erakunde autonomoetan berdintasuna bultzatzeko, koordinatzeko eta lankidetzan jarduteko unitate administratibo bat izango dute, gutxienez, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sail guztiek. Halaber, azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuak betebeharrak hori bera ezartzen die erakunde autonomoei, sozietateei eta gainerako entitate publikoei.

Halaber, lege horren arabera, beharrezkoa da foru- eta toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak sustatu, koordinatu eta garatuko dituen entitate, organo edo administrazio-unitate bat egotea.

Eusko Jaurlaritzako sail guztiek eta hiru foru-aldundiak badituzte berdintasunerako unitate edo organo horiek, bai eta mankomunitate eta partzuergo askok ere. Toki-administrazioaren egoera bestelakoa zen: 31 udalerrik —parte hartu dutenen % 45ek— soilik adierazi dute egitura horiek zituztela. Udalerrri txikiek jarraipenean izandako parte-hartzearekin bat dator hori, neurri handi batean.

Erakunde autonomoei eta kapital publikoko enpresei dagokienez, 10etik 4k baino gutxiagok zituzten egitura horiek. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Bizkaiko Batzar Nagusietan eta EHUn berdintasunerako unitateak edo organoak zeudela, jarraipenean parte hartu duten beste erakunde eta entitateen artean.

3. grafikoa. Ebaluazioan parte hartu duten erakundeen kopurua eta berdintasun-unitatea dutenena. 2018




Berdintasun-unitate edo -organoak oso tresna garrantzitsuak dira, administrazio publikoen jardueran berdintasuna zeharka bultzatzeko. Hortaz, egitura horiek ezarri zituzten erakundeek garrantzitsutzat eta sistematizatu beharrekotzat jotzen dituzte berdintasuna bultzatzeko estrategiak.

2018an, berdintasuna sustatzen ziharduten pertsonen buruzko informazioa biltzean, unitate horietan lan egiten zuten pertsonengan jarri da arreta; beraz, analisisian ez dira kontuan hartu emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako jardueraren bat noizean behin eta partzialki egin zuten pertsonak. Hori dela eta, 2018ko ekitaldian, murriztu egin zen berdintasunaren alde lan egiten zuten pertsonen kopurua; hain zuzen, erakundeek jakinarazi dute 159 pertsona aritzen zirela arlo horretan. Berdintasuna bultzatzen zuten langile horien % 43k Eusko Jaurlaritzako sailetan, foru-aldundietan eta Emakundeko berdintasun-unitateetan jarduten zuen, eta % 35ek, EAEko udaletan; gainerakoa erakunde autonomoetan, kapital publikoko enpresetan eta beste erakunde batzuetan aritzen zen.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren sustapenaren arloan lan egiten zuten enpleguaren ezaugarriak aztertuz gero, ikus dezakegu % 86 (137) emakumea zela, eta gehienak (114, % 72) lanaldi osoan zeudela. Aldi baterako kontratua zuten langileen kopurua bereziki handia zen udal-eremuan, mankomunitateetan eta foru-aldundietan; % 40tik gora ziren, hain zuzen.

Emakundek zituen EAEko berdintasuna bultzatzen lanean ari ziren pertsona gehien, eta udalek, oro har, berdintasun-teknikari gehien zituzten: udalek 2018an jakitera eman zutenek, 55 pertsonak egin zuten lan berdintasunaren sustapenean 2018an, eta haien % 91 emakumea zen.


4. grafikoa. EAEko berdintasun-langileak, erakundearen arabera. 2018




Berdintasuna bultzatzen dutenen erdiak baino gehiago administrazioko A mailan zeuden. Banaketa hori aldatu egin da administrazio batetik bestera: Eusko Jaurlaritzan eta foru-aldundietan, lanpostu horietako gehienak A mailakoak ziren, eta, udaletan, lanpostu guztien % 25 B mailari zegokion.

92 teknikarik zuten berdintasunari buruzko 150 ordutik gorako prestakuntza. Gehienek Eusko Jaurlaritzako sailetan, foru-aldundietan, mankomunitate eta partzuergoetan, eta erakunde autonomoetan jarduten zuten. Hala ere, kapital publikoko enpreetan eta beste erakunde batzuetan, oso pertsona gutxi zuten (edo batek ere ez zuten) prestakuntza-maila esanguratsua.

5. grafikoa. Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta berariazko prestakuntza dutenak, erakundearen arabera. 2018



6. grafikoa. Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta dedikazio eskusiboa duten berdintasun teknikariak (LO+LP), erakundearen arabera. 2018



2.1.4. Berdintasun-politiketara bideratutako baliabide ekonomikoak eta genero-ikuspegia EAEko aurrekontuetan


Administrazio publikoen politikak behar bezala garatzeko, aurrekontu egokiak behar dira. Ildo horretan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoko administrazioek, foru-administrazioek eta toki-administrazioek lege horretan aurreikusitako funtzioak betetzeko eta neurriak hartzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak esleitu eta zehaztuko dituzte beren urteko aurrekontuetan.

Jarraipen honetan aurkezten diren berdintasun-aurrekontuei buruzko informazioa interpretatzeko, bi kontu hartu behar dira kontuan: Eusko Jaurlaritzako sailek ahalegin handia egin dute azken urteotan berdintasuna sustatzeko partidak xeheago zehaztu eta identifikatzeko; hortaz, 2018an sartu ziren zenbait programari buruzko informazioa ez zen aurreko urteetan eman. Prozesu hori amaitu gabe dagoen arren —eta, kasu batzuetan, berdintasuna bultzatzeko ekintza positibotzat har daitezkeen esku-hartzeak hobeto zehaztu behar badira ere—, aurreko urteetan zehaztu ez diren partida batzuk (bereziki Hezkuntza Sailarenak) sartu dira jarraipen honetan, eta, horren ondorioz, ia halako hiru handitu dira arlo horretan identifikatutako aurrekontuak.

Halaber, 2018an, hiru foru-aldundien zenbatekoak sartu ziren aurrekontu horietan, nahiz eta guztizko zenbaketan askoz ere eragin txikiagoa izan (2017an, foru-aldundi batek ez zuen informaziorik eman), eta horrek nabarmen handitzen du erakunde horiei esleitutako kopurua.

Hori kontuan hartuta, administrazioek gauzatutako aurrekontuen banaketak erakusten du Eusko Jaurlaritzako sailek bideratu zutela zenbatekorik handiena (56,8 milioi). Foru-aldundiek ia 8,5 milioi euro bideratu zituzten berdintasunaren arloan. Ondoren, hirugarren lekuan, Emakunderen aurrekontuak daude, 5,5 milioi bideratu baitzituzten emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzera.


7. grafikoa. EAEko berdintasun-alorrean gauzatutako aurrekontua, erakundeen arabera (mila eurokotan). 2018



Erakundeek aurrekontu horiek banakatzen dituzte; hau da, zehaztu egiten dute zer zenbateko bideratzen diren berdintasun-plan eta -programetara, berdintasun-unitateetara (langile-kostuak zein berdintasuna sustatzeko jardueren kostua ordaintzeko), eta berdintasunaren sustapenarekin lotutako egitura eta zerbitzuetara. Banakapen hori gutxi gorabeherakoa izaten da; izan ere, erakunde batzuek erakundeen plan edo programetan sartzen dute berdintasun-unitateen kostua, edo ematen dituzten zerbitzuak sartzen dituzte plan horietan, eta gainezarpenak sortzen dira.

Muga horiek kontuan hartuta, banakapen horrek ematen duen ikuspegi orokorrak erakusten du, lehenik eta behin, aurrekontuaren zatirik esanguratsuena (44,3 milioi euro baino gehiago) plan eta programak ordaintzeko bideratu zela. Berdintasun-unitateetako langileen aurrekontua eta egitura eta zerbitzuena nabarmen txikiagoak izan ziren: hurrenez hurren, guztizko gastuaren % 9 eta % 7.

8. grafikoa. Aurrekontu xehakatuak (mila eurokotan). 2018



Erakundeek berdintasunaren arloan bideratutako guztizko zenbatekoa jakinarazitako aurrekontuen guztizko kopuruaren % 0,7 izan zen. Dena den, portzentaje hori asko aldatzen da erakunde batetik bestera.

Emakundek ez ezik, Eusko Jaurlaritzako sailek eta hiru foru-aldundietako bik ere beren aurrekontu orokorren genero-eraginaren aurretiazko balorazioa egin zuten. Beste erakundeen artean, oso gutxi egin zuten balorazio hori (hiru udalek, mankomunitate batek eta bost erakunde autonomok adierazi dute balorazioa egin zutela). Genero-ikuspegia txertatzen duten aurrekontu partzialei dagokienez, 116 izan ziren 2018an. Aurrekontu partzial horietako gehienak udalenak eta Eusko Jaurlaritzako sailenak izan ziren (% 49 eta % 43, hurrenez hurren). Erakundeek aurrekontuetan genero-ikuspegia erabiltzeko trebatzen eta lantaldeak sortzen jarraitu zuten, baina, berriro ere, oso gutxi txertatu zuten genero-ikuspegia, Emakundek, Eusko Jaurlaritzako sailek eta foru-aldundiek izan ezik.

2.1.5. Arauen genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioa EAEko herri-erakundeetan

Araudien generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioak egitea garrantzitsua denez, EAEko administrazio publikoek ahalegin handia egin behar izan dute ebaluazio horien ezarpena sustatzeko. Europako erakundeek ere garrantzitsutzat hartzen dute aurretiazko ebaluazioa; izan ere, hiru palanka nagusietako bat da administrazioetan generoaren zeharkakotasuna lortzeko. 4/2005 Legearen 19. artikulua xedatzen duenez, nahitaezkoa da arauak lantzen hasi aurretik emakumeen eta gizonen berdintasunean izan dezaketen eragina ebaluatzea.


Ebaluazio horien helburua da arauetan aurreikusitako jarduketak guztiek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan duten eragina aztertzea. Eragin negatiboak izango dituztela eta desberdintasun-egoerak bultzatuko dituztela aurreikusten denean, neurri zuzentzaileak proposatzen dira, arauak indarrean sartu aurretik.

Tresna horren erabilera-maila 2017koaren antzekoa izan zen 2018an: foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako sailek sistematikoki txertatu zituzten eraginaren aurretiazko ebaluazioak arauetan (122 eta 65 ebaluazio, hurrenez hurren); aitzitik, sei udal-arautan eta erakunde autonomoek eta erakunde publikoek egindako bederatzitan soilik egin zen eraginaren aurretiazko balorazio hori.

Egindako ebaluazio guztietatik, erdiek baino gehiagok (% 53, hau da, 108 arau) neurri zuzentzaileak txertatu zituzten baloratutako arauetan; ebaluazioen % 22k, berriz, neutrotzat jo zituen arauak, generoari dagokionez. Honako hauek izan ziren ekintza zuzentzaileak ohikoenak: genero-ikuspegia txertatzea (12 kasu); emakumeen parte-hartzea sustatzea (10 kasu), eta ekintza positiboak txertatzea (8 kasu). Aldiz, neurri zuzentzaile hauek ez ziren hain ohikoak izan: debekueko zehapen-neurriak (5 kasu) eta diskriminazio aniztuna jasaten duten emakumeei laguntzeko neurri espezifikoak (4 kasu).

Arauen eraginaren aurretiazko ebaluazioa sistematizatzeko administrazio publikoek egindako ibilbidean, zenbait tresna garatzen ari dira, hala nola gidalerroak edo bestelako jarraibide edo akordioak onartzea (kopuru mugatuan oraindik ere: 2018an, sei erakundek onartu zituzten, eta 12 onartzeko prozesuan zeuden), eta jarraipen-gailuak ezartzea (10 erakunde), nahiz eta, ikus daitekeenez, artean ez zeuden orokortuta.

9. grafikoa. Inpaktu-txostenak, berdintasun-neurriak gehitzea eragin dutenak eta araua neutroa dela ezarri dutenak, erakundeen arabera. 2018




2.1.6. Partaidetza berdintasun-politiketan

Berdintasun-politiketan, herritarren egiturazko parte-hartzea zenbait modutan garatu daiteke; esate baterako, berdintasunerako organo espezifiko bidez (organo horietan, berdintasuna sustatzen lan egiten duten erakundeek edo pertsonak politika horiek zehazten eta haien jarraipena egiten jarduten dute), gizarte zibileko erakunde edo adituen laguntzarekin, edo herritarren partaidetzarako organoetan berdintasun-funtzioak eta -helburuak zehaztuz, berdintasun-organo espezifikoak ez badira.

2018an jarraipenean parte hartu zuten erakundeek jakinarazi zuten 165 partaidetza-organo eta -kontseilu zeudela, eta horietatik 44 berdintasunekoak zirela beren-beregi. Hiru foru-aldundietako bik eta Emakundek berariazko berdintasun-kontseiluak zituzten, bai eta Eusko Jaurlaritzako bi sailek ere. Udalek izan zituzten horrelako partaidetza-egitura gehien, 33 partaidetza-organo edo -kontseilu baitzituzten, hain zuzen. Oro har, herritarren partaidetzarako organoen % 26 inguru berdintasunekoak zen berariaz; gainerako organoen % 20ek baino gutxiagok txertatu zuen genero-ikuspegia (ez zeukan arlo horretako helbururik edo jarduerarik zehaztuta, eta ez zuen erakunde edo pertsona adituen laguntza bermatu). Gainera, emakumeen eta gizonen ordezkartza ez zegoen orekatuta organo horietako gehienetan.

10. grafikoa. Berariaz berdintasun-alorrekoak diren edota funtzioetan nahiz osaeran genero-ikuspegia jasotzen duten organoak eta kontseiluak. 2018




2.1.7. Berdintasunari buruzko prestakuntza herri-administrazioetan


4/2005 Legearen 17. artikulua eskatzen die euskal administrazio publikoei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza emateko beren langile guztiei. Artikulu horrek ezartzen duenaren arabera, teknikariek eta erantzukizun politikoa duten pertsonak oinarritzko ezagutzak izan behar dituzte genero-desberdintasunei eta -arrakala nagusiei buruz, berdintasuna zeharka bultzatu ahal izan dezaten garatzen dituzten arlo eta jardura guztietan.

2018an, 21 erakundek (horien erdiak udalak) izan zuten berdintasunerako prestakuntza-plana; hau da, erakundeen % 16 inguruk egin zuten berdintasunarekin lotutako plangintza. Oro har, ia 7.000 pertsonak jaso zuten berdintasunari buruzko prestakuntza lan egiten zuten erakundeek sustatutako ekintzetan. Emakumeen parte-hartzea gizonena baino askoz handiagoa izan zen prestakuntza horretan (parte-hartzaileen % 72,5). Erakundeek sustatu gabeko prestakuntzan ere 916 parte-hartzaile izan ziren; prestakuntza horretan, gizonen parte-hartzea zertxobait handiagoa izan zen (% 54,5).

11. grafikoa. Emakumeak eta gizonak, Euskadiko administrazioek berdintasunaren arloan sustatutako prestakuntzan. 2018




12. grafikoa. Emakumeak eta gizonak berdintasunari buruzko beste prestakuntza batean (ez barnekoa, ez HAEERena). 2018




Jarraipen honetan jakin ahal izan dugunez, 7.876 pertsonak jaso zuten emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza, eta, neurri handi batean, hauek sustatu zuten prestakuntza: Eusko Jaurlaritzako sailek, EHUK eta Haurreskolek (parte-hartzaile guztien % 23, % 28 eta % 16, hurrenez hurren).

13. grafikoa. Berdintasunean trebatutako langileak, erakundearen arabera. 2018



Teknikariena da berdintasunaren arloko prestakuntzan gehien parte hartu zuen lanbide-kategoria (parte-hartzaile guztien % 56). Administrazioen parte-hartzea ere nabarmena izan zen (% 24). Arduradun politikoak, buruak eta zuzendariak % 10 inguru izan ziren. Katēgoria guztietan, gizon baino emakume gehiago trebatu ziren, bereziki administrazioen artean, buruen eta zuzendarien kasuan izan ezik; katēgoria horietan, gizonak parte-hartzaile guztien % 54 izan zen.

14. grafikoa. Berdintasunean trebatu diren pertsonak, katēgoria profesionalen arabera. 2018



2.1.8. Berdintasun-klausulak administrazio publikoen kontratu, hitzarmen eta dirulaguntzetan


Azken urteetan, kontratazio publikoan berdintasun-klausulak sartzea izan da botere publikoek jorratutako esparruetako bat. 4/2005 Legearen 20. artikuluaaren arabera, beharrezkoa da botere publikoen kontratuetan genero-ikuspegia txertatzea. Beraz, kontratazioen esleipendunak diren erakundeek eta pertsonak ere ezinbestekoa dute ikuspegi hori kontuan hartzea; izan ere, gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko neurriak ezarri behar dituzte.

Kontratazio publikoa hitzen barruan, zenbait modalitate daude, eta berdintasun-klausulak ez dira denetan modu berean integratu. Kontratuen esparruan, erakundeek jakinarazpena jaso zuten esleipendunen % 72k berdintasun-irizpideak txertatu zituen; aurreko ekitaldian, portzentajea antzekoa izan zen. Foru-aldundiek izan zuten irizpide horien erabilera-mailarik handiena (kontratuen % 93tan sartu zituzten berdintasun-irizpideak).

2018an jakinarazitako hitzarmen guztietatik, % 34k berdintasun-irizpideak txertatu zituen, eta emandako beken % 24k ere irizpide horiek jasotzen zituen. Dirulaguntzei dagokienez, berdintasun-irizpideak txertatu zituztenen proportzioa gutxi gorabehera kalkulatu da⁵ (% 51).

Kontratueta berdintasun-irizpideak aplikatzeko arauak edo jarraibideak 15 erakundetan onartu ziren (beste zortzik adierazi zuten onartzeko prozesuan zeudela), eta sei irizpide horiek dirulaguntzetan sartzeko gidalerroak onartu dituzte.

15. grafikoa. Berdintasun-irizpideak kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan. 2018



⁵ Erakunde batek dirulaguntza-kopuru handia jaso zuela adierazi zuen, baina ezin izan dugu datu hori egiaztatu.

2.1.9. Berdintasun-alorreko beste helburu garrantzitsu batzuen bilakaera gobernantzaren esparruan.


Sektorekako eta zeharkako planak

Erakundeen politika eta jarduketa guztietan genero-ikuspegia sartzea legezko agindu bat da; 4/2005 Legearen 3.4 artikuluan dago jasota betebeharrak. Berdintasun-politikak planifikatzean eta gauzatzean genero-ikuspegia sistematikoki txertatzea errazteko, ezinbestekoa da berdintasun-teknikarien parte-hartzea.

2018an, sektorekako eta zeharkako 48 plan estrategiko onartu ziren EAEn. Horietatik, erdiek, gutxi gorabehera, berdintasun-helburuak edo genero-berdintasuna bultzatzeko neurriak sartu zituzten, edo genero-adierazleak sartu zituzten beren ebaluazio-tresnetan.

Bestalde, plan gutxiagotan (% 35) egin zen aurretiazko diagnostiko bat, emakumeen eta gizonen artean zer desberdintasun-egoera egon daitezkeen jakiteko; erakundeetako berdintasun-arloko langileek plan horien % 39 ingurutan hartu zuten parte, eta berdintasun-unitate horien parte-hartzea are txikiagoa izan zen plan estrategikoen ezarpenean (% 31).


16. grafikoa. Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2018



Koordinazio-egiturak

Sailen arteko edo sailen barruko koordinazio-egiturek berdintasuna zeharka bultzatzen lagundu zuten erakundeen jardueran. 2018an, 36 erakundek jakinarazi zuten sailen arteko egiturak zituztela beren jardueraren arloetan berdintasun-politikak koordinatzeko (teknikarien, politikarien eta teknikarien 261 bilera egin zituzten). Halaber, zenbait erakundek adierazi zuten sailen barruko koordinazio-egiturak zituztela (Eusko Jaurlaritzaz gain, aldundi batek eta bi udalek zituzten). Arlo horretan, 47 erakundek zituzten koordinazio-egiturak berdintasunarekin lotutako gaietan, eta 55ek (erakunde guztien % 42) zituzten sexu-jazarpenari edo sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko jarduketa-protokoloak.

17. grafikoa. Berdintasun-alorreko unitateen eta langileen partaidetza euren erakundeetako koordinazio-egitura orokorretan. 2018



Erakundeen arteko koordinazioaren esparruan, oso egitura esanguratsuak daude EAEn. Hona hemen zenbait adibide: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea (hartan, erkidegoko, foruko eta tokiko administrazioek hartzen dute parte); Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea; Berdinsarea, Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea; eta Berdinbidean (udalerri txikietan berdintasunerako politikak sustatzeko, koordinatzeko eta udalerri horiei laguntza teknikoa emateko zerbitzua).

Estatistikak eta azterlanak

4/2005 Legearen 16. artikulua azpimarratzen du EAEko erakundeek genero-ikuspegia txertatu behar dutela egiten dituzten estatistika eta azterlanetan, eta baldintza hori ezinbestekoa dela beren jardueran genero-ikuspegia txertatzen dutela bermatzeko.

2018an, genero-ikuspegiaren sistematizazioa oso urria izan zen, oso azterlan eta estatistika gutxitan txertatu baitzen; hain zuzen, 21 erakundek soilik (% 16) txertatu zuten sexuaren aldagaia sistematikoki beren azterlanetan. Hauek dira salbuespenak: Emakundek sistematikoki txertatzen du genero-ikuspegia bere azterlan eta estatistika guztietan, eta, neurri txikiagoan, Eusko Jaurlaritzako sailek ere bai (nahiz eta genero-ikuspegia aintzat hartzea guztiz orokorra izan ez). Azkenik, tokiko administrazioan, oso azterlan eta estatistika gutxitan txertatu zen genero-ikuspegia.


2018an, berdintasunaren ezagutzari, balioari eta pertzepzioari buruzko 10 azterlan egin zituzten erakundeek, eta sektore jakin bateko emakumeen egoerari buruzko 21. Azterlan horiek (31) gutxiago izan ziren aurreko urtean egindakoak baino, baina sektore beretan egin ziren 2018an ere.

Ordezkaritza orekatua

Administrazio publikoek hau dute helburu: emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua lortzeko aurrerapausoak ematen jarraitzea erabaki- eta ikusgaitasun-eremu guztietan. Eremu horietako bat enplegu publikoa eskuratzeko, hornitzeko eta sustatzeko epaimahaiak dira. 2018an, deitutako epaimahaien % 58k izan zuen emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua, 4/2005 Legearen 20. artikulua ezarritakoari jarraituz. Sariak emateko edo kultura-funtsak erosteko deitutako epaimahaiak dagokienez, % 57k izan zuen emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua.


Epaimahaietan emakumeek eta gizonak partaidetza orekatua izateko, erakundeek ordezkaritza-berdintasunerako klausulak sartzen dituzte. Hori ez da hain ohikoa izan enplegu publikoa lortzeko epaimahaietan (% 37), eta ohikoagoa, berriz, sariak emateko epaimahaietan (% 88).

18. grafikoa. Epaimahaietan eta auzitegiatan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua. 2018



2018an, EAEko erakundeek kide anitzeko 213 zuzendaritza-organo identifikatu zituzten, eta haien % 45ek izan zuen emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua. Udalak izan ziren kide anitzeko zuzendaritza-organo gehien izan zituzten erakundeak. Haien % 68k izan zuen emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua.

19. grafikoa. Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2018




2.2. Esku hartzeko ardatzen jarraipenaren emaitzak

EAEko botere publikoek jakinarazi zuten emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko 535 jarduketa egin zirela 2018an. Kopuru horrek adierazten du azken urteetan bezala 2018an ere bere horretan jarraitu zuela jarduera-kopurua pixkanaka txikitzeko joerak. Horri buruz jasotako informazioan izan daitezkeen gorabeherak alde batera utzita, izaera bereko esku-hartzeak elkartzen (sentsibilizazio-kanpainak...) ahalegindu gara jarraipen honetan.

Eusko Jaurlaritzako sailek ekintza guztien % 41,3ren berri eman zuten, eta udalak izan ziren esku-hartze horien % 27,1en arduradun. Aipatzekoa da, halaber, 2018ko jarduketa guztien % 62,6k jarraipena eman ziela aurreko urtean egindako ekintzei.

20. grafikoa. EAEen berdintasun-alarrean jorratutako jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2018




Erakundeen artean alde nabarmenak daude erregistratutako ekintzetan, helburuari, tipologiari eta irismenari dagokienez. Hurrengo ataletan, aniztasun hori aztertuko dugu.

2.2.1. Esku-hartzeen helburu politikoak

Esku-hartzeen helburuak Berdintasunerako VII. Planean jasotako hiru ardatzen inguruan egituratu dira. Lehen ardatzak emakumeen ahalduntzea jorratzen du, eta bi programa hartzen ditu barne: alde batetik, ahalduntze pertsonal eta kolektiboari buruzkoa, eta, bestetik, ahalduntze sozial eta politikoari buruzkoa. Bigarren ardatzak ekonomien eraldaketan eta gizarte-antolaketan jartzen du arreta, eta hiru programa ditu: eraldaketa sozial eta ekonomikorako berdintasunaren onarpena, emakumeen autonomia ekonomikoa, eta zainketen ekonomia feminista. Hirugarren ardatzak emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak sustatzea du helburu, eta hiru programa ditu: sentsibilizazioa eta prebentzioa; kaltearen detekzioa, arreta eta erreparazioa; eta erakundeen arteko koordinazioa.

Jarraipenean, jarduerak helburu nagusi bakar batean biltzeko ahalegina egin dugu; hala ere, ohikoa da ekintza batek helburu bat baino gehiago izatea, eta erakundeek desoreka hori nabarmendu dute. 2018an, administrazio publikoen esku-hartze gehienek (166) *gizartean balio-aldaketa bultzatzea eta berdintasunaren aldeko kultura sustatzea* izan zuten helburu. Eusko Jaurlaritzako sailek, udalek eta Emakundek egin zituzten helburu horrekin lotutako ekintza gehien (49, 45 eta 39, hurrenez hurren). *Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea* ere ohiko helburuetako bat izan zen (123 esku-hartze). Arlo horretan, udalek eta Eusko Jaurlaritzako sailek bultzatu zituzten jarduketak gehien (46 eta 44, hurrenez hurren). Helburu hori betetzeko gauzatutako ekintzetan, garrantzi handiko zerbitzuak (juridikoak, psikosozialak, ostatua...) erabili ziren. Orobat, informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak ere egin ziren, horietako asko azaroaren 25a dela eta.

21. grafikoa. Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduketaren kopurua. 2018



Emakumeak ahalduntzea eta sustatzea esku-hartze ugariaren helburua ere izan zen (102 jarduketa 2018an). Udalek eta Eusko Jaurlaritzako sailek bultzatu zuten, batik bat, helburu estrategiko hori (38 eta 37 ekintza, hurrenez hurren). Emakumeak *ahalduntzeko eta sustatzeko* esku-hartzeetan, askotarikoak izan ziren jarduketak, eta esparru askotan landu ziren (kirola, lana, kultura eta abar). Horiez gain, emakumeek hainbat ingurunetan duten garrantzia agerian jartzeko ekintzak ere egin ziren, gazteei eta adingabeei zein adinekoei zuzenduta.

Gobernantza hobetzeko, 54 jarduketa bultzatu ziren; Eusko Jaurlaritzako sailek haietako 28ren ardura izan zuten. Azkenik, 21 esku-hartzek zainketekiko erantzunkidetasun soziala sustatzea izan zuten helburu, eta, horretan, Eusko Jaurlaritzako sailek bultzatu zituzten jarduketak gehien (18).

Zenbait erakundek euren jarduketan «beste helburu batzuk» ere zehaztu zituzten, esate baterako osasunarekin, kontsumoarekin, aniztasun afektibo-sexualarekin eta genero-identitatearekin lotuak.


2.2.2. Berdintasun-ekintzen gaiak

Berdintasuna sustatzeko ekintzak hiru gai nagusiren ingurukoak izan ziren batez ere, ekintza-kopuruari dagokionez. Hona hemen gai horiek: *hezkuntza* (96 jarduketa), *gizarte-politika* (84 jarduketa), eta *osasuna eta kontsumoa* (69 jarduketa).

Eusko Jaurlaritzako sailek, garatutako jarduketaren zati handi batean —hain zuzen, 61tan—, *osasunean eta kontsumoan* jarri zuten arreta; 36 jarduketatan, *ekonomian*; 30etan, *gizarte-politikan*; eta 27tan, *hezkuntzan*. Udaletan, nabarmentzekoa da *hezkuntzaren* arloko jarduketaren kopurua (40); *kulturan, euskaran, kirolean eta gizarte-politikan*, berriz, 23na jarduketa egin zituzten. Foru-aldundietan, nabarmentzekoa da *gizarte-politikan* garatutako ekintzen kopurua. Bestalde, Emakunderen ekintzen gai nagusia ere izan zen hori.

Halaber, kontuan izan behar da esku-hartze askok gai bat baino gehiago izan zituztela, hau da, zeharkakoak izan zirela, eta erakundeek ez zituztela sailkatu.

22. grafikoa. Gai zehatz bati lotuta jorratutako jarduketaren kopurua. 2018



2.2.3. Esku-hartze mota

Administrazio publikoek askotariko ekintzak egin zituzten emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko. Jarraipen honetan, honela sailkatu ditugu: *esku-hartze arautzaileak* (deialdietan berdintasun-irizpideak sartzeari, protokoloak onartzea...); *ekonomikoak* (dirulaguntzak eta laguntzak ematea, beste erakunde batzuek, hirugarren sektoreak edo herritarrek berariazko esku-hartzeak gara ditzaten); *herritarrei eta zerbitzu publikoei zuzendutako prestakuntza-ekintzak*; eta *sentsibilizazio, hedapen eta komunikaziorako* esku-hartzeak (jardunaldiak, kanpainak, materialen edo liburuxken argitalpena eta banaketa...).

Halaber, esku-hartze hauek ere identifikatu dira: *informazio, ezagutza eta analisirako esku-hartzeak* (txostenak, azterlanak, diagnostikoak, estatistika-datuak ekoizpena eta abar); *zerbitzu, baliabide eta/edo ekipamenduak sortu eta kudeatzekoak*; *herritarrek parte hartu eta haiei kontsultatzekoak*; eta *unitate, erakunde eta organismo publiko eta pribatuaren arteko koordinazioa eta hitzarmenak lortzeko esku-hartzeak* (tokiko, foru-mailako eta/edo nazioarteko hitzarmen, akordio eta protokoloak sinatzea eta kudeatzea).

Analisian, kontuan hartu dugu jarduketa bat tipologia batekoa baino gehiagokoa izan daitekeela. Horrelakoak dira sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak eta erakundearen arteko koordinazio-ekintzak, bereziki; izan ere, bi tipologia esku-hartzeak garatzen dituzte sarritan (hedapena eta sentsibilizazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa, koordinazioa eta prestakuntza, eta abar).

Oro har, azpimarratu behar da administrazio publikoek 2018an egindako esku-hartze motak aurreko urteetan jakinarazitakoen antzeko samarrak izan zirela. Berdintasuna sustatzeko garatutako jarduketa gehienek helburu bera izan zuten: *sentsibilizazioa, hedapena eta komunikazioa* sustatzea. 200 jarduketa izan ziren tipologia horretakoak (jarduketa guztien % 37). Esku-hartze horietako gehienak Eusko Jaurlaritzako sailek, Emakundek eta udalek garatu zituzten.

Jarduketa ekonomikoak ere ohikoak ziren (131, % 24), hau da, dirulaguntzak eta laguntzak, beste erakunde batzuek, hirugarren sektoreak edo herritarrek berariazko esku-hartzeak gara ditzaten; Eusko Jaurlaritzak tipologia horretako 42 jarduketa egin zituen, eta udalek 40. Halaber, *informazio, ezagutza eta analisirako* esku-hartze ugari sustatu ziren; besteak beste, txostenak, azterlanak eta diagnostikoak egitea, eta estatistika-datuak ekoiztea (121 jarduketa). Eusko Jaurlaritzak eta Emakundek egin zituzten tipologia horretako jarduketa gehien; bestalde, hori izan zen ohikoena foru-aldundien esku-hartzeetan.

Laugarren postuan, garatutako ekintzen kopuruari dagokionez, *unitateen, erakundearen eta erakunde publiko eta pribatuaren arteko koordinazioa eta hitzarmenak* lortzeko esku-hartzeak zeuden, 106 jarduketa egin baitziren: horietako 30 jarduketak udalek egin zituzten, eta 21, Eusko Jaurlaritzako sailek eta Emakundek.

Herritarrek berdintasunean trebatzea sustatzeko, 96 esku-hartze egin ziren 2018an. Udalek (45), Eusko Jaurlaritzak (15) eta Emakundek (14) sustatu zituzten, batik bat. Proportzio txikiagoan, 65 jarduketa garatu ziren administrazio publikoen mendeko zerbitzu publikoetako *profesionalei prestakuntza* emateko, eta gehienak Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek bultzatu zituzten.

Esku-hartze hauek ez ziren hain ohikoak izan: berdintasuna sustatzeko arauak, protokoloak eta erregulazioak egin eta/edo berrikusten dituzten *esku-hartze arautzaileak* (54); hainbat egoeratan dauden emakumeei arreta emateko *zerbitzuak edo ekipamenduak sortu eta kudeatzekoak* (41 jarduketa, besteak beste berdintasunaren, ahalduntzearen eta gizarte-erantzunkidetasunaren arloko aholkularitza-zerbitzuak emateko, eta, bereziki, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko); eta *herritarren partaidetza bildu eta haiei kontsulta egitekoak* (38 jarduketa, gehienak EAEko zenbait udalek sustatuak, partaidetza- edo kontsulta-prozesu edo -guneak abian jartzeko, herritarren elkarteek edo gizabanakoek parte har dezaten).

23. grafikoa. Jarduketa-kopurua esku-hartze motaren arabera. 2018




Hurrengo epigrafeetan, esku-hartze horietako batzuen irismenari eta ezaugarriei buruzko informazio zehatzagoa azalduko dugu.

2.2.3.1. Prestakuntza

EAEko erakundeek sustatzen duten berdintasuneko prestakuntzari dagokionez, bi mota daude: herritarrei oro har zuzendutako prestakuntza eta erakundearen zerbitzu publikoetako profesionalei zuzendutakoa.

Berdintasunaren arloan herritarrei oro har zuzendutako prestakuntza-ekintzetan, 18.400 pertsonak⁶ baino gehiago hartu zuten parte, erakundeek erregistratutako datuen arabera. Parte-hartzaileen datuak sexuaren arabera banakatuta aztertuz gero, jakin dezakegu prestakuntza-ekintza horietako parte-hartzaileen % 61 (7.852) emakumea zela, eta % 39 (5.089), gizona. EAEko udalek eta Eusko Jaurlaritzako sailek garatutako prestakuntza-ekintzek bildu zituzten parte-hartzaile gehien (6.453 eta 6.314, hurrenez hurren). Dena den, Emakundek, foru-aldundiek, eta mankomunitateek eta partzuergoek garatutako prestakuntzan ere pertsona askok hartu zuten parte.


24. grafikoa. EAEn berdintasunean trebatutako pertsonak (herritarrek), erakundearen arabera. 2018



Prestakuntza-ekintza horiek hainbat helburu zituzten, baina gehienak berdintasunari buruzko ezagutza hobetzera bideratu ziren (aztertutako prestakuntza-ekintza guztien ia % 70ek helburu hori zuen, lehentasunezko helburua udalek bultzatutako prestakuntzan). Prestakuntzan parte hartu dutenei beren lanbide-jardueran berdintasun-printzipioak aplikatzen laguntzea izan zen jardueren % 20ren helburua. Emakundek, foru-aldundiek eta udalek sustatu zuten prestakuntza hori, bereziki. Azkenik, enplegarritasuna edo garapen profesionala hobetzeko egindako zazpi prestakuntza-ekintzetatik, foru-aldundiek bost bultzatu zituzten. Prestakuntza-ekintzen % 15ek baino apur bat gehiagok prestakuntza egin izanaren ziurtagiria edo akreditazioa eman zuten.


⁶ Prestakuntza-ekintzetan izandako 5.400 partaidetza baina gehiagotan, ez da parte-hartzaileen sexua adierazi; beraz, guztizko datuak ez datoz bat.

25. grafikoa. Herritarrak trebatzeko ekintzen kopurua, helburuaren arabera. 2018



Zerbitzu publikoetako profesionalei (irakasleak, osasun-langileak...) zuzendutako prestakuntzan, 3.835 pertsonak hartu zuten parte guztira; haietatik, 2.431 emakumeak izan ziren (% 78), eta 701, gizonak⁷. Prestakuntza horietan parte hartu zuten pertsonen erdiek baino gehixeagok Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek antolatutako prestakuntza jaso zuten; Emakundek ere horrelako prestakuntza sustatu zuen (prestakuntza-ekintza guztien % 24).


26. grafikoa. EAEen berdintasunean trebatutako langile publikoak, erakundearen arabera. 2018



Xede-publikoari erreparatuta, hau izan zen erakundeek sustatutako prestakuntza-ekintzen erdien baino gehiagoren helburua: parte-hartzaileek eskuratutako ezagutzak beren lanean (zerbitzu publikoak) aplikatzen laguntzea. Helburu hori beste helburu batekin uztartzen zen, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ezagutza hobetzeko helburuarekin, alegia (emandako prestakuntzaren % 41). Halaber, identifikatutako 56 prestakuntza-ekintzetatik, 18tan (% 32) ziurtagiria edo akreditazioa eman zitzaizen ekintza parte hartu zutenei.


⁷ Zenbait erakundek ez dituzte datuak sexuaren arabera banakatu; hori dela eta, 703 pertsonako aldea dago datuetan.

27. grafikoa. Zerbitzu publikoentzako prestakuntza-jarduketaren kopurua, helburuaren arabera. 2018



Herritarrei eta zerbitzu publikoetako profesionalei zuzendutako prestakuntza-jardueretan parte hartutako emakumeen eta gizonen kopuruak alderatuz gero, ikusiko dugu bi prestakuntza horietan emakume gehiagok hartu zutela parte. Herritarrentzako prestakuntzan, emakumeak parte-hartzaileen % 61 izan ziren; zerbitzu publikoetako langileentzako prestakuntzan, berriz, ia parte-hartzaile guztien % 78 izan ziren⁸.

28. grafikoa. Herritarrentzako prestakuntzan eta administrazioetako langile publikoentzako prestakuntzan parte hartu dutenen kopurua. 2018




⁸ Lehenago adierazi dugunez, prestakuntza-ekintza guztietan ez da gizonen eta emakumeen kopuruaren xehakapenik agertzen eta, beraz, datu osoak eta xehakatuak ez datoz bat. Portzentajeak ez dagozkio parte hartutako pertsonen guztizko kopuruari, identifikatutako emakumeen eta gizonen kopuruaren baturari baizik.

2.2.3.2. Sentsibilizazioa


EAEko erakundeek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko sentsibilizazioaren esparruan sustatutako ekintzetan, 17.208 pertsonak hartu zuten parte 2018an. Emakumeak izan ziren ekintza horien xede-hartzaile nagusiak (9.678, parte-hartzaileen % 60). Horrez gain, 6.545 gizon sentsibilizatu ziren ekintzetan (parte-hartzaile guztien % 40). Toki-administrazioek eta Emakundek mobilizatu zituzten pertsona gehien. Parte-hartzaile guztien % 42,2k eta % 35ek hartu zuten parte bi erakunde horiek sustatutako ekintzetan, hurrenez hurren. Bestalde, foru-aldundiek sentsibilizazio-ekintzak sustatu zituzten, eta 2.000 pertsona baino gehiago izan ziren haietan (parte-hartzaile guztien % 12).

29. grafikoa. Berdintasun-alorreko sentsibilizazio-ekintzetako partaideak, erakunde sustatzailearen arabera. 2018



Sentsibilizazioko esku-hartzeen tipologia askotarikoa izan zen: % 29 (78 jarduketa) *jardunaldi, erakusketa eta solasaldien* bidez garatu zen; eta 76 esku-hartzetan, *sentsibilizazio-materialak* sortu eta banatu ziren. Halaber, ohikoak izan ziren *komunikazio instituzional eta korporatiboko* ekintzak eta *hedabideetako hedapen-kanpainak* (hurrenez hurren, 65 eta 48 ekintza).


30. grafikoa. Sentsibilizazio-ekintzen kopurua, ekintza-motaren arabera. 2018



2.2.3.3. Informazioa, ezagutza eta analisia


Berdintasun-politikak ezagutza-oinarri sendo baten bidez diseinatu behar dira, eta oinarri hori etengabe eguneratu behar da, desberdintasunetan eragina duten faktoreak azkar aldatzen direla kontuan hartuta. Erakundeek 2018an emandako informazioaren arabera, Eusko Jaurlaritzako sailek 46 informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketa egin zituzten, eta foru-aldundiek, pixka bat gutxiago, 43, hain zuzen. Emakundek horrelako 24 ekintza egin zituen; hau da, erakunderik aktiboenetako bat izan zen ekintza-mota horiei dagokienez.

31. grafikoa. Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2018



Jarduketa horiek *diagnostikoak edo azterlanak egitea* (44) eta *datuak biltzea edo informazioa biltzeko sistema aldatzea* (42) izan zuten helburu. *Ebaluazio-txostenak egitea* (38) eta, bereziki, berdintasun-estrategiak eta -politikak hobetzeko ideiak emateko *proposamenen txostenak egitea* (28) ez ziren hain ohikoak izan. Azkenik, jakinarazitako ekintzetako 16ren helburua *barneko jarduera-jarraibideak aldatzea edo berrikustea* izan zen.


32. grafikoa. Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, oinarrizko edukiaren arabera. 2018



2.2.4. Ekipamenduak eta zerbitzuak sortu eta kudeatzea


Baliabide, zerbitzu eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jarduketa gehienak Eusko Jaurlaritzarenak eta udalenak izan ziren. Aztertutako baliabideak emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematera bideratu ziren bereziki (13 zerbitzu edo baliabide). Berdintasunari buruzko informazioa eta aholkularitza emateko jarduketak (8) eta emakumeen ahalduntzearen arlokoak (7) ere ohikoak izan ziren.

33. grafikoa. Zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2018



Identifikatutako baliabide eta zerbitzu gehienak aurretik zeuden. 2018an, 13 baliabide, zerbitzu edo ekipamendu berri sortu ziren: udalak bost sortu zituzten, eta Eusko Jaurlaritzako sailek, hiru.

34. grafikoa. Zerbitzu eta baliabideak sortu, kudeatu eta aldatzeko jarduketaren kopurua. 2018




2.2.5. Berdintasun-ekintzen onuradunenganako hurbilpena (erakundeak nahiz pertsonak)

2.2.5.1. Ekintzen onuradunak


EAEko erakundeek berdintasuna lortzeko bultzatzen dituzten ekintzak gizarte osoari zuzentzen zaizkio; hortaz, ez dira talde espezifikoentzat soilik izaten (ekintza espezifikoak % 38 izan ziren 2018an). Sexu jakin bateko pertsonentzat egindakoetan, emakumeentzat izaten dira bereziki (2018an, ekintzen % 73), eta, neurri txikiagoan, gizonentzat (% 19). Halaber, ekintzen % 8 (17 ekintza) bitarrak ez diren pertsonen zuzendu zitzaizen.

35. grafikoa. Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, sexuaren arabera. 2018




Ekintzak biztanle-taldearen arabera aztertuta ikusten denez, sustatutako ekintzak gazteei zuzendu zitzaizkien batez ere (57 ekintza). Ekintza horietako gehienak toki-administrazioek (26), Emakundek (14) eta Eusko Jaurlaritzak (11) sustatu zituzten. Bestalde, azken bi erakunde horiek egin zituzten adineko pertsonentzako ekintza gehien (10 eta 9, hurrenez hurren).

36. grafikoa. Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, beste aldagai batzuen arabera. 2018



Garatutako esku-hartzeetako batzuen oinarrizko helburua zen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murriztea edo desagerraraztea, eta, horretarako, adinarekin, sexu-aukerekin, etniarekin, arrazarekin eta abarrekin lotutako beste desberdintasun batzuk landu zituzten. Udalek eta Emakundek garatu zituzten desberdintasun horiek barne hartu zituzten esku-hartze gehien. Sexu-aukerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako sailek sustatutako ekintzak nabarmentzen dira. Udalek, bestalde, adinagatiko edo gizarte-klaseagatiko diskriminazioaren kontrako ekintza gehien egin zituzten (kasu guztietan, 10 ekintza inguru).


37. grafikoa. Bestelako desberdintasunak borrokatzera bideratutako ekintzen kopurua 2018



2.2.6. Ekintzak egokitzeko neurrien erabilera

Erakundeei informazioa eskatzean, galdetu zitzaion ea beren jarduketetan desgaitasunen bat zuten pertsonen parte-hartzea errazteko neurririk hartu zuten; besteak beste, itzulpena pertsona gorrentzat, irisgarritasun fisikoa eta komunikatiboa, eta migratzaileentzako egokitzapenak, hala nola beste hizkuntza batzuetako itzulpena. Jakinarazitako jarduketa guztietatik, 25ek erraztasunak sartu zituzten desgaitasunen bat duten pertsonentzat, eta 12k, berriz, migratzaileentzat. Emakundek eta foru-aldundiek egin zituzten egokitzapen horiek batik bat, bai desgaitasuna duten pertsonentzat, bai migratzaileentzat.

38. grafikoa. Egokitzapen-neurriak dituzten ekintzen kopurua. 2018



2.2.7. Esku-hartzeen kostua


Gobernantzaren esparruan, erakundeek berdintasun-politikei esleitutako eta gauzatutako aurrekontua aztertu dugu; horri esker, egoeraren ikuspegi orokorra lortu dugu. Atal honetan, ordea, erakundeek jakinarazitako jarduketaren kostua aztertuko dugu; guztira, 52,8 milioi eurokoa izan zen. Aurretik aipatu dugunez, Hezkuntza Sailaren zenbait jarduera —27 milioi euro ingurukoak (guztizko gastuaren ia erdia)— ere hartu ditugu kontuan. Horren ondorioz, 2018ko aurrekontuek eta kostuek hautsi egin zuten aurreko ekitaldietako joera.

Orobat, 2018ko esku-hartzeen kostua aztertzean, ohartu gara ez dagoela indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko zerbitzu eta baliabide batzuei buruzko informazio ekonomikorik. Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimen —eta dagokionean haien seme-alaben— arretaren (laguntza juridikoko eta psikologikoko zerbitzuak, laguntza ekonomikoak eta abar) eta emakumeen kontrako indarkeriaz sentsibilizatzeko, gaiari buruzko prestakuntza emateko edo prebenitzeko ekintzen aurrekontua 8,6 milioi euro ingurukoak izan zen, 2018ko jarduketetan emandako informazioaren arabera. Zenbateko horrek esan nahi du 17 milioi eurotik gorakoa izango litzatekeela guztizko kostua, betiere, Segurtasun Sailak gobernantzaren arloan bideratutako aurrekontua —9 milioi baino gehiago— sartuz gero.

Erakundeek beste arlo batzuk ere jorratu zituzten 2018an, hala nola, kontziliazio erantzukidearen sustapena, landa-eremuetan bizi diren edo egoera ahulean dauden emakumeentzako arreta eta ahalduzko eskolak. Jarduketa horiek eragin nabarmena izan zuten aurrekontuan, bai eta, bakoitzak bere jarduera-eremuan berdintasuna sustatzeko, beste erakunde batzuei, emakume-elkarteei, enpresei eta abarri emandako laguntza ekonomikoek eta dirulaguntzek ere.


Erakundeek jakinarazi dizkiguten ekintzen % 61ek kostuak ere jaso ditu. Gainerako ekintzak langileek garatu zituzten gehienbat, eta, beraz, ez zitzairen aurrekonturik esleitu. Erakunde autonomoek, kapital publikoko enpresek eta Eusko Jaurlaritzako sailek izan zituzten, proportzionalki, kosturik gabeko esku-hartze gehien (behintzat, ez zuten kostuari buruzko informaziorik eman).

39. grafikoa. EAEn berdintasun-alorrean jorratutako jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. Jarduketa guztiak eta kostua identifikatuta. 2018



